



Gora Herriak jaialdia, Pasai Donibanen, 2019an. ERIK SALAZAR

Herriak elkartzuz Pasai Donibanen

URTERO BEZALA, 'GORA HERRIAK' JAIALDIA EGINGO DUTE PASAI DONIBANEN, MAIATZEAN ETA EKAINEAN.

Unai Etxenausia

1 Pasai Donibanek (Gipuzkoa) Ameriketako edo «Abya Yala» osoko aho-tsak eta erritmoak hartuko ditu datozen egunetan, Gora Herriak - Jatorrizko Herriak jaialdiaren barruan. Abya Yala zer den ezagutaraztea izango da jaialdiaren ardatza: Ameriketako jatorrizko herriek beren lurraldeari ematen dioten izenetik abiatuta, kultur aniztasuna eta memoria

kolektiboa ospatzeko gune izango da Pasai Donibane.

Bixi Bixi elkarteak antolatutako egitasmoak jatorrizko herrien borrorak, hizkuntzak, jakintzak eta sorkuntzak ekarriko ditu herriko kale eta aretoetara, maiatzaren 22tik ekainaren 7ra bitartean. Hitzaldiak, ikastaroak, bertso saioak, kalejirak, herri bazkariak eta musika emanaldiak bilduko ditu egitarauak, eta, koloreak eta mezuak uztartuta, herri aniztasunaren eta erresistentziaren aldeko aldarria egingo dute.

Abya Yala izena Panama eta Kolonbiako herri indigenek erabili zuten Ameriketako kontinenteari izena emateko, Kristobal Kolon iritsi baino lehen. Denboraren poderioz, beste herri askok ere euren egin dute izen hori; maiek, kasurako. Gaur egun, herri indigenen ordezkari ugari erabiltzen dute, Amerika, Mundu Berria eta halako izenen ordezkari. Abya Yalak, interpretazioaren arabera, «lur heldua», «lur bizia» edo «lortzen ari den lurra» esan nahi du. Kontzeptu hori, ordea, ez da izen soila; esanahi sakonagoa du. Ez da termino geografiko hutsa, jarrera ideologiko bati lotuta dago.

Gaur, lehenengo hitzaldia

Datozen egunetan hitzaldiak izango dira Pasai Donibaneko Kultur Aterpean. Gaur, 19:00etan, Jon Sarasuak eta Yuma Forero antropologoak *Abya Yala: aniztasuna eta erresistentzia* gaia izango dute hizpide. Hilaren 27an, berriz, Nasa eta Maia herrietako hizkuntza biziberritzeko prozesuak eta emakumeen lidergo komunitarioa jorratuko dira.

Beste hainbat hitzaldi-hizketaldi izango dira tartean. Hilaren 31n, berriz, hitza eta musika uztartuko dituen *Kontu Kantari* saioa egingo dute Juanba Berasategi aretoan. Ekainaren 4an, Cira Crespo historialaria eta Celeste Agüero kantari eta aktibista izango dira hizlari, deskolonizazioari eta gorputzen borrokari buruz hausnartzeko.

Jaialdiko ekitaldirik jendetsuenak ekainaren 6ko kontzertua eta 7ko azken jai handia izango dira —Meipi gunean egingo dira—. Hilaren 6an, ostiral gauean, Olloki eta Ingot musika taldeek giroa dute gaua, eta larunbateko egun osoko egitarauak askotariko kultur adierazpenak bilduko ditu: inauteri tradizionalak, folklore erakustaldiak, herri bazkaria, eta dantza eta musika ikuskizunak. Arratsaldean egingo dute ekitaldi nagusia, eta eguna Hija del Nopal DJaren saioarekin amaituko da, «Abya Yala osoko» musikaren erritmoan.

Gora Herriak ez da soilik ospakizun bat: aldarrikapen politiko eta kulturalerako esparru bat ere bada. Urtero legez, mundu osoan baztertuak izan diren herrien jainduria eta iraupena goraipatzen ditu, eta ikuspegi dekolonial batetik abiatuz eraikitzen du elkartasuna. Aurten, jaialdiak zubi bat eraiki nahi du «Abya Yala» ardatz hartuta, elkarrizketa eta elkarrekotasuna oinarri hartuta. ●

Gora Herriak jaialdia. Gaur hasi eta ekainaren 7ra bitarte, Pasai Donibanen (Gipuzkoa).

2

Kontzertuak Rock doinuak ermitan

Eguzkierripa Rock jaialdia. Larunbatean, eguerditik aurrera, Aramaion (Araba).




Eguzkierripa Rock jaialdiaren 16. aldia ospatuko dute larunbatean Aramaio (Araba) Eguzkierripa auzoan. Egun osoko egitaraua antolatu du herriko Gazte Asanbladak, baina kontzertuak izango dira protagonistak: Lee Kore, Irten-Bide, Hoben, Bellum eta Oihu! Kontzertuak 20:00etan hasiko dira

3

Antzerkia Egunerokoa oholtzara

'Ni ta nitarrak' antzerkia. Gaur, 17:00etan, Eskoriatzako (Gipuzkoa) Zaldibar antzokian.



Ni ta nitarrak antzezlanaren aurkezpena gaur, 17:00etan, Eskoriatzako (Gipuzkoa) Zaldibar antzokian. Iholdi Beristain aktoreak eguneroko gaiak ekarriko ditu oholtera gainera umorearen bidez, eta erdipurdikotasunari apologia egingo dio. Ikuskizunaren gidaria Maria Oseseke idatzi du.

4

Bertso saioa Bizkaiko lehen fasea

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Gaur, 18:30ean, Ermuko (Bizkaia) Lobianon.




Bizkaiko Bertsolari Txapelketa saileko lehen faseko saioa jokatuko dute gaur Ermuko (Bizkaia) Lobiano kulturunean. 18:30etik aurrera, kantuan arituko dira Izaro Bilbao, Jon Martinez Beasakoetxea, Peio Molinuevo, Ana Picallo, Garikoitz Sarriugarte eta Iker Uriarte Urrutia bertsolariak.

5

Hitzaldia Esku pilota hizpide

Esku pilotaren inguruko hitzaldia. Gaur, 18:00etan, Baionako Euskal Museoa.



Jacques Saldubeherek *Euskal pilota zaindu, ohituretan atxiki edo gaurkotasunaren alde zuzendu?* hitzaldia emango du gaur, 18:00etan, Baionako Euskal Museoa. Euskal pilotaren transmisioa, ondarea eta egungo erronkak izango ditu hizpide; tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka aztertuko du.